

Ahozko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
2	30 puntu (%20)	15 minutu

HELBURUAK

Bakarrizketa:

- ♦ Gai konplexu bati buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea, gaiari buruz hitz egitea eta bere ikuspuntua defendatzea ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erabiliz.
- ♦ Denbora-koherentziari nahiz koherentzia logikoari eustea, eta behar adina informazio eta behar bezain esanguratsua eskaintzea.
- ♦ Ideiak lotzeko lokailuak eta diskurtso-antolatzaileak egoki nahiz malgutasunez erabiltzea.
- ♦ Hitz-jario egokiz mintzatzea, esanahi-ñabardurak helarazteko doinu zehatza erabiliz.

Elkarreragina:

- ♦ Eztabaidetan, elkarrizketetan eta negoziazioetan parte hartzea, zuzentasunez eta hitz-jario egokiaz, esanahi-ñabardurak transmitituz.
- ♦ Solasaldi informaletan modu aktiboan parte hartzea, solaskide bakarrarekin edo gehiagorekin, gai abstraktu, konplexuei buruzkoetan.
- ♦ Argumentuak argi garatzea eta ideia osagarriak nahiz adibide egokiak erabiliz azaltzea.
- ♦ Beste solaskideen ikuspuntuen nahiz argumentuen gainean, nork bere iritzia ematea, horretarako, beste argumentu, ikuspuntu eta iritzi batzuk egoki erabiliz.
- ♦ Naturaltasunez aritzea, hurbiltasun edo urruntasun maila egokiari eutsiz.
- ♦ Zenbait gertakarik eta esperientziak berarentzat duten garrantzia helaraztea, eta horiek eragiten dioten emozioa adieraztea.
- ♦ Gai baten gaineko ikuspuntua azaltzea, eta aukera batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak azaltzea.
- ♦ Diskurtsoko funtzioetarako perpaus egokiak hautatzea nork bere ekarpenak egiteko, hitz hartu eta hitzari eusteko eta nork bere esku-hartzeak gainerako solaskideenekin lotzeko.
- ♦ Diskurtsoko kontrol-mekanismoak modu egokian erabiltzea (solaskideek esandakoa ulertu dutela ziurtatzea, informazioa egiaztatzea edo gezurtatzea, nork bere burua zuzentzea, informazioa zuzentzea, esanahiak argitzea, ...)
- ♦ Argibide zehatzak ematea.

TESTU-MOTA POSIBLEAK

Bakarrizketa: Beste azterketari bati edo batzuei emandako azalpena.

Elkarreragina: Hizketaldia beste azterketari batekin edo batzuekin.

ARIKETA-MOTAK

1. ariketa: bakarrizketa

Azterketariek 150 eta 200 hitz arteko testua edota argazkiak, irudiak nahiz grafiko iruzkinduak jasoko dituzte. Horiek guztiak probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera, informazioa eman eta garapen-proposamenak egingo dira. Azterketariak informazio horretaz balia daitezke ariketa gauzatzeko.

Azterketari bakoitzak proposatutako gaiaren gainean aritu beharko du, beste azterketariari bere ikuspuntua azalduz, informazioa gehituz, bere iritzia adieraziz.

Azterketariak 20 minutu izango du ariketa hau eta bitartekotza zatiari dagokion 2. ariketa prestatzeko.

Denbora: azterketari bakoitzak 4 eta 5 minutu artean izango ditu bere azalpena gauzatzeko.

2. ariketa: elkarreragina

Azterketariak elkarrekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helaraziko diote eta nor bere iritzia adierazi beharko dio besteari. Arazo baten balizko zioak aztertuko dituzte; irtenbideak alderatuko dituzte eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu dute.

Azterketariak galderak egin eta galderei erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, mintzaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.

Azterketariak orri bat jasoko dute; proposatutako ariketa eta ariketa hori gauzatzeko beharrezkoa duten informazio guztia azalduko zaie bertan. Fitxa horretan, halaber, zerrenda bat ager daiteke; bertan, ikuspegi desberdinen aldeko edo kontrako argudioak nahiz datuak bilduko dira. Informazio horrek eztabaida gidatu eta suspertuko du.

Ez du denborarik izango ataza hau prestatzeko

Ariketa gauzatzeko denbora: 5 minutu.

Azterketak binaka egingo dira (salbuespenez, hiruak). Epaimahaiak hartuko ditu azterketa egiteko orduan jazo litekeen edozein gertakizunen gaineko erabakiak.

[Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen zehatzaqoa.](#)

Bitartekotza

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
2	30 puntu (%20)	25 minutu (idatzizko bitartekotza ariketak) 4 minutu (ahozko bitartekotza ariketak)

*Bitartekotza atalak bi ariketa izango ditu. Ariketak ez dira saio berean egingo, bi saio ezberdinetan baizik. Saiotako batean, idatzizko bitartekotza ariketa egingo da idatzizko adierazpenari dagozkion ariketekin eta idatzizko zein ahozko ulermenei dagozkien ariketekin batera. Ahozko bitartekotza ariketa beste saio batean egingo da ahozko adierazpen ataleko ariketekin batera.

HELBURUAK

- ◆ Ahozko zein idatzizko testuen zein irudien (grafikoak, kartelak, iragarkiak, diagramak ...) puntu naqusiak, zehaztasun esanquratsuak, eta iritzia eta jarrerak, hala esplizituak nola implizituak, hautatzea, testuingurura egokitzea eta ahoz zein idatziz besteei helaraztea.
- ◆ Pasarte idatzien parafraziak egitea, beharrezko zehaztasunez eta modu koherentean.
- ◆ Hainbat iturritatik jasotako informazioak eta ideiak idatziz sintetizatzea edo ahoz helaraztea, informazio zehatza eta argudio konplexuak modu fidagarrian emanaz.
- ◆ Jasotako informazioaren gaineko ondorioak ateratzea.
- ◆ Gai konplexuei buruzko ahozko testuetatik, besteentzako ohar idatzia eta zehatzak hartzea.
- ◆ Zailtasun estruktural eta kontzeptualak dituzten testuen pasarteak edo zailtasun teknikoak dituztenak itzultzea.
- ◆ Solaskide bi edo gehiagoren arteko solasaldi konplexuak idatziz zein ahoz laburtzea.

ARIKETA-MOTAK

1. ariketa: idatzizko bitartekotza

Hautagaiari 70-90 hitzeko idazlana egiteko eskatuko zaio. Idazlana bideratzeko, honako bi aukeretako bat eskainiko zaio:

- 1) Ahozko zein idatzizko testu bat edo gehiago emango zaio (idatzizkoa bada, gehienez 310 hitz eta ahozkoa bada gehienez 2 minutukoa). Testuingurua kontuan hartuta, testua egokitu, laburtu, sintetizatu edo parafraseatu egin beharko du.
- 2) Irudi bat edo gehiago (grafikoa, kartela, iragarkia ...) emango zaio. Testuingurua kontuan hartuta, informazioa helaraziko du.

Ariketa egiteko 25 minutu emango zaizkio.

2. ariketa: ahozko bitartekotza

Hautagaiari bi minutuko berbaldia egiteko eskatuko zaio. Hori bideratzeko, honako aukeretako bat eskainiko zaio:

- 1) Ahozko zein idatzizko testu bat emango zaio (idatzizkoa bada, gehienez 250 hitz izango ditu eta ahozkoa bada, gehienez 2 minutukoa). Testuingurua kontuan hartuta, testua egokitu, laburtu edo sintetizatu egin beharko du.
- 2) Irudi bat edo gehiago (grafikoa, kartela, iragarkia ...) emango zaio. Testuingurua kontuan hartuta, informazioa helaraziko du.

Ariketa prestatzeko denbora emango zaio. Ahozko adierazpeneko bakarrizketa ariketa eta ahozko bitartekotza ariketa prestatzeko, 20 minutu emango zaizkio.